

**Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari****SALBURUA BHIko INSTALAZIO BERRIETARA BISITA
VISITA A LAS NUEVAS INSTALACIONES DE IES SALBURUA BHI**

2025-03-17 Vitoria-Gasteiz 17-03-2025

Sailburua, Herri agintari eta ordezkariok, Salburua Ikastetxeko zuzendari, irakasle eta ikasleok, jaun-andreok, egun on guztioi!

Edozein zerbitzu berriren atek zabaltzeak beti sortzen du nolabaiteko zirrara eta ilusioa. Baita urduritasun puntu bat ere.

Nolanahi ere, eta nahiz eta irailetik martxan egon, denok bat etorriko gara gaurkoa egun berezia dela esaten dudanean.

Salburua Ikastetxean egindako lanek mezu argia bidaltzen dute: gure Herriak hezkuntzaren alde egiten duen apustu sendoa.

Herri honek aspaldi daki hezkuntzaren garrantzia zein den.

Hezkuntza dena da. Jakintsuago egiten gaitu. Pertsona bezala osoago egiten gaitu. Hitz gutxitan esanda: hobeak egiten gaitu. Eta, beraz, zaindu behar dugu. Denon ardura da. Ikastetxe honetatik, eta gure herriko beste guztietatik, biharko mediku, zurgin, erizain, albaitari, arkitekto, kazetari, polizia edo irakasleak aterako dira.

Eta gure buruari galdetzen diogu: nolakoak izatea nahi dugu? Erantzuna argia da: ahalik eta askeen izatea nahi dugu. Hori da, hain zuzen ere, hezkuntzak ematen diguna: askatasuna.

Beraz, ondo pentsatu behar dugu zer den gure ikasleei eman nahi dieguna, hori izango baita gure gizarteari emango diotena.

Kalitate goreneko hezkuntza sistema eskatzen du gure gizarteak. Eta denon ardura da hori lortzea. Gobernuarena, zentroena, irakasleena, ikasleena eta familiaena. Hau da, komunitate osoarena.

Gaur aurrerapauso garrantzitsua ematen dugu.

Izan ere, 'Hezkuntza Eraiki 2030' estrategiaren helburua da Euskadiko hezkuntza-azpiegiturak eraldatzea, hezkuntza-sistemaren beharretara egokitzen diren espazio moderno, malgu eta jasangarriak sortzeko.

Horretarako, 750 milioi euro bideratuko ditugu 2030era bitartean oinarrizko 5 printzipio jarraituz:

- Hezkuntza-kalitatea hobetzea, XXI. mendeko beharretara egokitzuz,
- Berrikuntza sustatzea teknologia eta metodologia pedagogiko berritzaileak txertatuz,
- Osasuna erdigunean jartzea hezkuntza-komunitatearen ongizate fisiko eta emozionala zainduz,
- Inklusioa bultzatzea ikasle guztientzat irisgarritasuna eta aukera-berdintasuna bermatuz, eta
- Jasangarritasuna eta etorkizunarekiko konpromisoa etengabe lantzea jardunbide jasangarriak sustatuz.

Beraz, eta laburbilduz, hau ez da eraikin berri bat, besterik gabe.

Sormena sustatzen duen, inspiratzailea den, harremanak errazten dituen eta komunitate-sentimendua indartzen duen espazio batez ari gara. Etorriko diren besteak bezala.

Salburuaz gain, besteak beste, Etxebarrin, Muskizen, Zumaian edota Aldaialden lanak bukatu dira dagoeneko.

Astigarragan, Orixen edo Musakolan lanetan gaude momentu honetan.

Trueban, José Miguel Barandiaranen, Egape Ikastolan, Haizederren, Elorrieta-Erreka Marin, edo Urkitzan proiektuak aurrera doaz.

Eta Sopelan, Murgian, Urritxen, Gatican edota Balmasedan hezkuntza azpiegitura berriak egingo dira.

Hau da, guztira, 250 jarduketa baino gehiago 'Hezkuntza Eraiki 2030' estrategiaren markoaren barruan.

Lo hemos repetido desde el Gobierno en más de una ocasión: somos autoexigentes. Y debemos educar en la autoexigencia. Debemos promover los valores del trabajo, el esfuerzo y la libertad creativa.

Pero para eso debemos dar ejemplo. Ofrecer las mejores herramientas para que el alumnado de Euskadi tenga los mejores recursos a su alcance.

Hoy no venimos a visitar un nuevo edificio simplemente. Hoy damos un paso más en la construcción de los centros escolares de la 'Euskadi Berria' que se harán bajo el paraguas de la estrategia 'Hezkuntza Eraiki 2030'. Hoy subrayamos desde aquí el compromiso del Gobierno Vasco con el desarrollo de los centros escolares de la "Euskadi Berria", que se harán bajo el paraguas de la estrategia "Hezkuntza Eraiki 2030", y en donde hay muchos elementos que permiten observar qué tipo de edificaciones necesita la educación actual en el S.XXI.

Una estrategia que contará con un presupuesto de 750 millones de euros hasta el 2030 para acometer más de 250 actuaciones.

Porque invertir en infraestructuras educativas también es apostar por el bienestar del alumnado. Es apostar por la calidad, equidad y sostenibilidad del sistema educativo. Y esto tiene un impacto directo en la motivación y el éxito de toda la comunidad educativa.

A su vez, tenemos claro que debemos mejorar los resultados del sistema. Y solo existe un único camino para lograrlo: dando lo mejor de todas y todos nosotros.

Gobierno, centros escolares, alumnas y alumnos, profesorado y familias debemos unir nuestros esfuerzos y auto implicarnos.

Porque solo así conseguiremos construir la sociedad del mañana a la que aspiramos. Una sociedad de personas libres, formadas y educadas en el sistema educativo vasco.

Gaur egun polita dugu. Ilusioarekin ematen diogu ongi etorria Salburuako Ikastetxe honi, gure herriko beste hainbatek jarraituko dutena.

Lehen mailako eraikin eta baliabideak ere beharrezkoak direlako lehen mailako Euskal Hezkuntza Sistema denon artean errealitate egiteko.

Eskerrik asko guztioi eta bereziki zuzendariari eta irakasle guztiei eta baita ere gurekin egon diren ikasleei. Mila esker egindako tourragatik oso interesgarria izan da eta !